

SARRERA

DBH garaian oinarrizkoa da kontuan izatea duten aldaketa garaia eta taldeko erlazioek eta norberaren identitateen definizioak duten garrantzia. Gainera pentsamendu abstraktua garatzera eta praktikan jartzera bultzatzea.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

URAREN BILA

Ura Bildu eta aurrezteko teknika mota ezberdinak lurralde ezberdinetan.

Uraren beharra eta eskasia erakusten die ikasleei.

Informazio hauekin, ikastetxean hitzez bidez beste ikasleei azalduko diete arazo amankomun hauek.

Lainoen ehiza

Aireko hezetasuna harrapatzeko eta ur edangarria lortzeko teknikak deskribatzen dituzte bi bideo:

[Atacamako basamortuan \(Chile\)](#)

[Chileko basamortuko adibide hau pixkanaka garatuz doa ezaugarri beretsuak dauzkaten eremuetan.](#)

[Afrikan \(Warka Water\)](#)

Euri uraren bilketa

Euri ura biltzeko eta metatzeko, material berrerabilgarriekin egin daitezkeen metodo ezberdinak.

[Tlaloque sistemaren deskribapena](#)

Eta gurean?

Ahotsakeko testigantza bertan ere ura lortzeko lana egin behar zenekoak:

<https://ahotsak.eus/arano/pasarteak/aro-003-019/>

<https://ahotsak.eus/urnieta/pasarteak/urn-004-023/>

<https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-039-005/>

<https://ahotsak.eus/amasa-villabona/pasarteak/vil-001-018/>

Ondoren norberak bere etxeko zaharrenari galdetu zer den beraiek dutena gogoan txikitan ura nondik lortzen ote zen. Eta saiatu ikusten zein urtetatik aurrera dugun ura etxeetan.